

## **TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN HARRERA- APARTAMENTUA ARAUTZEKO ARAUTEGIA**

### **ZIOEN AZALPENA**

Zarauzko Udalak genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-etxe bat dauka. Baliabide hori 2004. urteaz geroztik dago martxan eta honakoei erantzuten die: hasiera batean, Gizarte Zerbitzuetako 5/96 Legean planteatutako aurreikuspenei eta Gizarte Zerbitzuetako funtzioak betetzeari buruzko uztailearen 30eko 155/2001 Dekretuari.

5 urte horietan baliabidearen funtzionamenduan izandako esperientziak eta estatu, autonomia eta udal mailan araudiek izan dituzten aurrerapenak agerian utzi dute arautegia errealitate berri honetara egokitu beharra dagoela.

Azken araudien artean honakoak nabarmendu behar dira: Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Lege berria; estatuko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonezkoen berdintasunerakoa; eta 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, etxeko eremuan tratu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituena.

Gainera, aipatutako dekretuari jarraiki, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008ko abuztuan, tratu txarrak jasan dituzten emakumeak berehala hartzeko zentroa sortu eta abian jarri izanak ekarri du, batetik, larrialdiko arretaren kalitatearen hobekuntzan aurrerapauso handia eta, bestetik, tratu txarren biktimak lurralde osoko hoteletara eraman beharrik ez izatea; eta ondorioz, lurraldean genero-indarkeriako egoerei berehala eta modu integralean erantzun ahal zaie

Beste alde batetik, lankidetzaren printzipioa betez, beste udalerrri batzuetako biktimen egoerei irtenbide bat bilatzeko dauden beharretan aldaketak sartu behar dira.

### **XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua. Gaia.**

Arautegi honen helburua da tratu txarren biktima diren emakumeen Harrera-apartamentua arautzea.

#### **2. artikulua. Helburuak.**

Tratu txarren biktima diren emakumeen Harrera-apartamentuak honako helburu hauek ditu:

- a) Etxeko eremuan tratu txarrak jasan izanaren ondorioz ohiko bizilekua aldatzera behartuta dauden emakumeei, edo haien mende dauden pertsoneri (haien kargu dauden seme-alabei -adin txikikoak direnei zein ez direnei- edo haien mende dauden helduei) aldi baterako bizitokia ematea.
- b) Pertsona horiek beren egoera pertsonalean eta familia-egoeran beharrezkotzat edo egokitzat hartzen dituzten aldaketak egiteko, eta horretarako erabakiak hartzeko astia eta babes egokiak ingurune seguru batean izateko aukera eskaintzea.
- c) Emakumeen autonomia pertsonala sustatzea egoerari egokiro aurre egin ahal izan diezaioten, eta, horretarako, beharrezkoa den aholkularitza, informazioa eta laguntza eskaintzea eta babes-baliabiderik egokienak eskuratzeko aukera ematea.
- d) Premietara egokitutako laguntza eta gizarte-babes trinkoa ematea.
- e) Lagundutako pertsonen segurtasun fisikoa eta psikikoa eta, bereziki, harrera-baliabideen kokapenaren konfidentzialtasuna bermatzea, babes-funtzioak bete behar dituzten eragile publiko judizialei edo polizialei izan ezik.

### **3. artikulua. Hartutako pertsonak.**

Araudi honek araututako Harrera-apartamentuan pertsona hauek hartuko dira:

- a) Emakume adinduak edo adin txikiko emakume emantzipatuak, baldin eta etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituztelako euren etxea edo ohiko bizilekua utzi eta premia handia badute aldi baterako babesa eta bizitokia lortzeko.
- b) a) idatz-zatian adierazitako emakumeen mendeko pertsonak, hots, haien kargu dauden seme-alabak (adin txikikoak diren edo ez diren kontuan hartu gabe) edo mendeko helduak, betiere bizikidetzaren unitate berekoak badira. Ondorio horietarako, hartutako emakumearen guraso-aginteari, tutoretzari, kuratelari edo zaintzari lotuta dauden adin txikikoak hartuko dira emakumeen kargu dauden adingabetzat, emakumeek aginte horiek eraginkortasunez eta eskusiboki erabiltzen dituztenean, edota, beste pertsona batekin batera erabiliz gero, arrisku-egoerak saihesteko pertsona horiek emakumearekin bizitzea komeni denean, edo agintaritza eskudunak hori xedatzen duenean.

### **4. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.**

1. Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea

onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako eskubideak izango dituzte hartutako pertsonak.

2. Berariaz, harrera-baliabideetan hartutako pertsonak honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Baliabidean irauteko eskubidea, arautegi honetan egonaldia amaitzeko adierazitako arrazoiren bat agertzen ez den bitartean.
- b) Hartutako bizikidetzaren unitateko kide guztiak elkarrekin egoteko eskubidea. Horretarako, baliabide berean hartuko dira denak.
- c) Datu pertsonalen babeserako eta konfidentziasunerako eskubidea.
- d) Harrera-baliabidearen instalazioak eta baliabidean dauden erabilera komuneko objektuak, ekipamenduak eta tresnak erabiltzeko eskubidea.
- e) Informazioa eta aholkularitza jasotzeko eskubidea: gaur egun dauden baliabide sozialei, psikologikoei, sanitarioei, hezkuntza eta kultura arlokoiei, judizialei eta pertsona horien profilerak eta premietara egokitutako beste batzuei buruzkoa, eta baita horiek lortzeko moduaren ingurukoa ere.
- f) Harrera-apartamentuan dauden bitartean gizarte eta hezkuntza arloko eta laguntzako programa batean txertatzeko eskubidea.
- g) Baliabidearen eskaera idatziz egiteko eta erantzuna gehienez bost egun naturaleko epean idatziz jasotzeko eskubidea.
- h) Banan-banako laguntza, familia mailakoa eta pertsonalizatua jasotzeko eskubidea.
- i) Norberaren borondatez zentroa uzteko eskubidea.
- j) Eskubide horien edukiari eta eskubide horiek baliatzeko bideei buruzko informazioa erraz ulertzeko moduan jasotzeko eskubidea.
- k) Zerbitzuaren zaintza eta funtzionamendu onean parte hartzeko eskubidea.
- l) Egokiak iritzitako iradokizun eta erreklamazio guztiak planteatzeko eskubidea, erreferentziako gizarte langilearen bitartez, edo horretarako berariaz jarritako iradokizun-ontzian idatzia utzita edo Zarauzko Udalaren Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan eskabidea betez.

## **5. artikulua. Hartutako pertsonen betebeharrak.**

1. Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako betebeharrak izango dituzte hartutako pertsonak.

2. Berariaz, Harrera-apartamentuan hartutako pertsonak honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Bi agiri sinatuko ditu: batetik, sartzeko eskaera-orka eta, bestetik, Harrera-apartamentua erabili eta gozatzeko arautegian adierazitako arauak beteko dituela adierazteko konpromisoa. (idatzi honi atxikitako 1. eranskina).
- b) Gizarte Zerbitzuek eskatutako dokumentazioa dagokion epean aurkeztea, eta eduki ditzakeen eskubideak betearaztea, batez ere eskubide zibilak eta/edo ekonomikoak (behin-behineko neurriak eskatzea, tramite judizialak...).
- c) Beren seme-alaben edo beren kargu dauden beste pertsona batzuen zaintza arduratzea.
- d) Baliabidea erabiltzen duten gainerako pertsonen pentsamendu-askatasuna, iritzi-askatasuna, ideologia-askatasuna eta erlijio-askatasuna errespetatzea.
- e) Hartutako pertsonen artean gatazkarik edo desadostasunik izanez gero, erakunde arduradunak erabakitako neurriak betetzea.
- f) Baliabidearen helbidea eta telefono-zenbakia anonimatuan gordetzea. Beste erakunde publiko batzuek bizilekuaren datuak eskatzen dituztenean eman behar da, erreferentzia gisa, oinarrizko gizarte zerbitzuaren edo zerbitzu horren erakunde arduradunaren helbidea.
- g) Elkarrekin bizi direnen arteko elkarbizitza eta bizilagunekiko bizikidetzaren errazteko elkarrekin arteko errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jarrera agertzea, eta bizilagunen komunitatean ezarritako arauak betetzea.
- h) Etxebizitzan eskuragarri dituzten objektuak, ekipamenduak eta tresnak egokiro eta errespetuz erabiltzea.
- i) Baliabidearen instalazioetan nahita edo zabarkeria larriagatik eragindako kalteak erantzutea.
- j) Zerbitzuan hartuta ez dauden edo langile baimenduak ez diren pertsonen baliabideak erabiltzen ez uztea, arduradunen esanbidezko baimena dutenean izan ezik.

- k) Apartamentuko giltzen kopiarik ez egitea edo giltzak beste pertsona batzuei uztea. Egonaldia bukatutakoan apartamentuko arduradunari eman beharko zaizkio giltzak.
- l) Baliabidean animaliarik ez izatea, zakur gidariei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legean jasotako baldintzetan edota baliabidearen ardura duen erakundeak esanbidez baimendutako beste kasu batzuetan izan ezik.
- m) Erreferentziako gizarte zerbitzuek landutako banan-banako plana edo familia-plana betetzea.

## **6. artikulua. Sartzeko baldintzak.**

1. Harrera-apartamentuan sartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskatzaileek:

- a) 3. artikuluan deskribatutako egoeretako batean egotea.
- b) Seguratasun-baldintzetan bizitzeko beste etxebizitzarik ez izatea, edo behar bezain azkar ezin erabili izatea.
- c) Harrera-apartamentua dagoen udalerriko erroldan inskribatuta egotea edo. lankidetzaren printzipioa aplikatuta, EAEko beste edozein udalerritako erroldan. Azken kasu horretan, inplikaturako erakundearen arteko lankidetzaren eta harreraren ondoriozko gastuen finantzaketa antolatzean, alde batetik, hartutako emakumearentzat kaltegarria ez izatea hartuko da kontuan, eta, bestetik, erakundeek beren gain hartu beharreko erantzukizunen arteko desorekarik ez sortzea.

2. Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta ez dauden eskatzaileen kasuan, hasierako harrera baimenduko da, baina, baliabidean jarraitzeko beharrezkoa izango da erroldatzeko izapideak hastea, Estatuko beste autonomia erkidego batzuetan erroldatuta dauden eta erroldatuta dauden lekua aldatu nahi ez duten pertsonen kasuan izan ezik. Kasu horretan, aurreko idatz-zatian inplikaturako erakundearen arteko lankidetzari eta egonaldiaren ondoriozko gastuen finantzaketari buruz xedatutakoa aplikatuko da.

## **7. artikulua. Sartzeko modua.**

1. Harrera-apartamentua lortzeko hasierako eskaera Udal Gizarte Zerbitzuen bitartez egin beharko da, eta zerbitzu horrek egoeraren premiak eskatzen duen arintasunarekin bideratu beharko du. Nolanahi ere, geroago egoeraren zirkunstantziak eta ezaugarriak aztertu beharko dira premien ebaluazio baten esparruan, eta, hala badagokio, egoera horri banan-banako laguntza-plan batekin edo familia-plan batekin erantzun zaitzaio.

2. Sartzeko unean edo aurretik, idatziz jasoarazi beharko da hartutako pertsonak baimena ematen duela, eta Harrera-apartamentuaren antolamenduari, funtzionamenduari eta bizikidetzari lotutako baldintzak, berehalako harrera-zerbitzuaren informazioko, orientazioko eta laguntzako zerbitzuen esku-hartzea (etxebizitza zerbitzu horren bitartez lortzen bada), eta erreferentziako gizarte zerbitzuak premiei dagokienez egindako balioespena onartzen dituela.

3. Sartzeko unean, Harrera-apartamentuko giltza emango zaio hartutako pertsonari; etxebizitzan beste bizikidetzaren unitate batekin bizi bada, bere bizikidetzaren unitateari dagozkion gelen giltzak emango zaizkio.

4. Zirkunstantziengatik hartutako pertsona beste udalerriri bateko Harrera-apartamentu batera joatea komeni bada, momentu horretan dauden koordinazio-protokoloen arabera jokatu beharko da.

## **8. artikulua. Egonaldia.**

Familia-etxebizitzaren erabileraren esleipena ezartzen duten prozedura judizialen ebatzpenaren datara bitartean iraungo du egonaldiak gutxienez, erabiltzaileak berak egonaldiaren amaiera eskatzen duenean izan ezik.

Edonola ere, 4 hilabeteko epea igaro ondoren, beste gizarte-baliabide, gizarte-programa, etxebizitza-baliabide edo etxebizitza-programa batzuen bidez erantzun ahal izango zaio bizitoki-premiari, betiere premien balioespen batek hori aholkatzen badu.

Hala ez bada, hasiera batean ezarritako epea luzatu ahal izango da, betiere harrera eragin zuten baldintzak aldatzen ez badira eta banan-banako planean ezarritako helburuak bete egin beharko dira.

Dena dela, egonaldia gehienez ere 24 hilabetekoa izango da, apartamentuan egondako lehenengo egunetik kontatzen hasita.

## **9. artikulua. Erreferentziako Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea**

Harrera-apartamentuko erabiltzaileek erreferentziako profesional bat izan beharko dute dagokion Gizarte Zerbitzuetan. Profesional horrek premiak ebaluatuko ditu eta zaintzarako banan-banako plan bat edo familia-plan bat landuko du.

Hartu behar den pertsona beste udalerriri batetik badator, erreferentziako gizarte langilea udalerriri horretakoa izango da eta berak egingo du arretarako banan-banako planaren jarraipena. Horrelako kasuetan, jatorrizko udalerririak Harrera-apartamentua dagoen udalerririko gizarte langilea jakinaren gainean eduki beharko du.

## **10. artikulua. Laguntzeko baliabideak.**

Arretako banan-banako planaren edo familia-planaren esparruan, Harrera-apartamentuaren erabiltzaileek norbaitek lagunduta ibiltzeko programa bat izango dute. Horrez gain, Gizarte Zerbitzuetatik, euren profil eta premietarako egokienak diren gizarte-baliabideetarantz orientatu beharko dira.

- Laguntza psikologikoa.
- Laguntza eta esku-hartze psikologikoa, terapeutikoa edo gizarte eta hezkuntza mailakoa, etxeko eremuan indarkeria jasateko arriskua duten seme-alabentzat, indarkeriari aurrea hartzeko eta ondorioak murrizteko edo txikiagotzeko.
- Orientazio eta aholkularitza juridikoa.
- Laguntza ekonomikoak.
- Laneratzera eta autonomia ekonomikora eta pertsonalera bideratutako prestakuntza-jarduerak.
- Hartutako emakumeen kargu dauden pertsonen laguntzeko baliabideak eta, bereziki, haurtzaindegiak eta mendeko helduentzako eguneko etxez etxeko arreta-zerbitzuak.
- Derrigorrezko eskolaratzearen adinean dauden pertsonak berehala eskolaratzea.
- Bidezkotzat hartzen diren beste batzuk.

Xede horrekin, bidezkotzat hartzen dituzten baliabide publikoetara eta pribatuetara jo ahal izango dute Gizarte Zerbitzuek.

## **11. artikulua. Egonaldiaren amaiera.**

Egonaldiaren amaiera eragingo duten zirkunstantziak honako hauek izango dira:

- a) Sartu ahal izateko egon diren baldintzak desagertu edo bukatu izana.
- b) 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki ezarritako egonaldiaren epea amaitu izana.
- c) Ezarritako betebeharrak bete ez izana.
- d) Beste bizitoki-aukera bat egotea.
- e) Interesdunak esanbidez uko egin izana.

2. Hartutako pertsonak 2 asteko epea izango dute Harrera-apartamentua uzteko, aurreko idatz-zatietan amaitzeko adierazitako arrazoiren bat agertuz gero. Epe hori

igaro ondoren etxebizitza utzi ezean, utzarazteko bidezkoak diren lege-neurriak hartu ahal izango dira, betiere azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, aurreikusitakoa errespetatuta.

3. Aurrekoa gorabehera, c) kasua gertatzen bada eta ez-betetzea 5.2.1 artikuluari lotuta badago, hartutako pertsonak berehala utzi beharko dute apartamentua.

## **12. artikulua. Tasak eta ekarpen ekonomikoa**

Hasierako harrera, lehen 4 hilabetetan zehar, doakoa izango da. Egonaldia 4 hilabetetik gora luzatzen bada, zerbitzu horien erabiltzaileek dagokion ordenantza fiskalean urtero zehazten den tasa ordaindu beharko dute, ondorengo irizpideen arabera:

Erabiltzaileek kopuru horren %100 ordainduko dute ondorengo egoeretan:

- Baldin erabiltzaileak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetzaren unitate baterako jarritako indarreko kopuruaren % 150etik gorako diru-sarrerak baditu.
- Baldin apartamentuan dagoen artean erabiltzailea bizitoki gastuak ordaintzeko edozein laguntza publiko edo pribatu jasotzen ari bada. Udalak berak emandako laguntzak ez dira kontuan hartuko ondorio hauetarako.
- Baldin zerbitzua erabiltzeko eskaera beste erakunde batek egin badu, 6. artikuluan adierazitako moduan.

Erabiltzaileek kopuru horren %50 ordainduko dute ondorengo egoeretan:

- Baldin erabiltzaileak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetzaren unitate baterako jarritako indarreko kopuruaren %100etik gorako eta %150 edo hortik beherako diru-sarrerak baditu.

Erabiltzaileek ez dute tasarik ordainduko ondorengo egoeretan:

- Baldin erabiltzaileak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetzaren unitate baterako jarritako indarreko kopurua edo hortik beherako diru-sarrerak baditu.

Zerbitzua, arrazoi desberdinak direla-eta, hainbat pertsonak edo pertsona taldek partekatzen badu, bakoitzak aurreko irizpideen arabera dagokion tasa ordaindu beharko du.

## **13. artikulua. Utzarazpen administratiboa.**



Arautegi honetan adierazitako arrazoiengatik edo emandako epea bukatu izanagatik, Harrera-apartamentua utzi behar bada, baina bertan daudenek utzi nahi ez badute, utzarazpen administratibo bidez behartuko dira, eta hori egiteko Toki-erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 120. artikulua eta hurrengoak, edo hura ordezkaturiko duen araudiak xedaturako prozedurak jarraituko dira.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Arautegi honetan jaso gabeko kasu guztietan, edota sor daitezkeen aurrekusi gabeko kasu berezi guztietan, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak ahalmen osoa izango du kasu bakoitzean egoki iruditzen zaizkion neurriak proposatzeko.

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko Arautegia, hasierako izaeraz, 2010eko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautz, 2010eko uztailaren 6a  
Idazkaria

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko, Arautegiaren testu osoa 2010eko abuztuaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (165 zk.) argitaratu zela, eta 2010eko irailaren 17an sartu dela indarrean.

Zarautz, 2010eko irailaren 21a  
Idazkaria